




# SL-Gi 2007

## Sara ibilbidea

7,3 Km / 2 h 10 min

**NATURA PARKEETAKO IBILBIDE SAREA**

Gipuzkoako Natura Parke bakoitzak bere ibilbide sarea du. Homologatutako eta ondo seinaleztatutako bide hauen bitartez babesgune bakoitzeko intereseko puntu nagusietara gerturatzeko aukera eskaintzen da. Modu horretan natura baliabideen inguruan ezagutza eta errespetua sustatuz. Gipuzkoako Natura Parke ezberdinak, berriz, DSS2016 GRSAREAren bitartez saretuak daude.

**RED DE SENDEROS DE LOS PARQUES NATURALES**

Cada Parque Natural de Gipuzkoa alberga su propia red de senderos. A través de estos senderos, homologados y bien balizados, se ofrece la oportunidad de aproximarse a los puntos de interés de cada zona protegida. Promoviendo, de este modo, el conocimiento y el respeto por los recursos naturales. Los distintos Parque Naturales de Gipuzkoa, en cambio, están entretejidos a través de la DSS2016 GRSAREA.




## Profila
Perfil

Luzera | Longitud
7,3 km

Desnibela | Desnivel
+142 m / -137 m

## SL-Gi 2007

Sara ibilbidea

Joxe Migel Barandiaranekin lotura handia duen ibilbidea da honakoa. Peruenezar, bere jaiotetxea, Sara etxea, zendu zen arte urte askotan bizitoki izan zuena, eta Larruntza errota, orain Barandiaran Museo bilakatu dena, aurkitzen dira Barandiaranek hain gogoko zuen ibilbide honetan. Egunero egiten zuen bueltatxoa Gaztiñerreko depositura, ibilbidearen punturik garaienera. Garai bateko herri-bideak, baserriak, baso eta larreak, erreka bazterrak, San Martin eta beste eremu batzuk batzen dira ibilbide erraz, lasai eta eder honetan.

Este recorrido está muy vinculado a la figura de José Miguel de Barandiaran. Su casa natal de nombre Peruenezar; Sara etxea, el hogar donde residió durante largo tiempo hasta su muerte; y el molino Larruntza, recientemente inaugurado como el museo Barandiaran, se reúnen en este recorrido donde él mismo solía pasear. Todos los días subía al depósito de Gaztiñerre que es el punto más elevado de este camino. Caminos vecinales de antaño, caseríos, bosques y prados, orillas de ríos, San Martín, etc. son algunos de los recursos que se pueden disfrutar en este fácil, tranquilo y maravilloso sendero.

### Interes puntuak | Puntos de interés

a



ZELABEAR DORRETXEA: San Gregorio auzoan dagoen XVI. mendeko harrizko eraikin hau Lazkaoko jaunarena izan zen. Letosa edo Leitosa izenez ere ezagutu zen. Jauretxe itxura duen etxe honek 450 metro karratuko azalera du. Ondoan San Gregorio Magnoren eliza dago eta, dirudienez, aintzinako gaztelu baten gainean eraiki zen. Inguruan, besteak beste, burdinola bat eta errota bat ere ikusgai dira. Auzo honetako festak abuztu amaieran ospatzen dira.

CASA TORRE ZELABEAR: Este edificio de piedra del S. XVI fue propiedad del señor de Lazkao. También fue conocido por los nombres de Letosa o Leitosa. Esta casa de aspecto señorial ocupa una superficie de unos 450 metros cuadrados. Junto a ella se localiza la iglesia de San Gregorio Magno que parece ser que se construyó sobre un antiguo castillo. En los alrededores, también se pueden ver una ferrería y un molino. Las fiestas de este barrio se celebran a finales de agosto.

b



SAN MARTIN ERDIGUNEA: Ataungo auzo jendetsuena da, ondoren San Gregorio, Aia eta Ergoiena datoz. Bertan ondorengo zerbitzuak aurki daitezke, beste batzuen artean: udaletxea, ikastola, kiroldegia, antzokia eta medikuaren kontsulta. XV. mendeko San Martin de Tourseko elizaren atarian bizilagunen batzarrak ospatzen ziren udaletxea eraiki zuten arte. Festak azaroan ospatzen dituzte San Martingo auzoan.

CENTRO DEL BARRIO SAN MARTIN: Es el barrio más poblado de Ataun al que siguen San Gregorio, Aia y Ergoiena. En él se pueden encontrar, entre otros, los siguientes servicios: ayuntamiento, escuela, polideportivo, teatro y consulta médica. Los vecinos realizaban sus reuniones en el pórtico de la iglesia de San Martin de Tours (S. XV) hasta que se construyó el ayuntamiento. En el barrio de San Martin celebran sus fiestas en noviembre.

c



ASTIGARRAGA AISIALEKUA: Garai batean, Gipuzkoan zehar, horrelako gune asko ireki ziren lurraldeko biztanleriari aste buruko aisia aukerak zabaltzeko helburuarekin. Aisialekuetan eskaintzen den oinarrizko zerbitzua mahaiena da eta, horrez gain iturriak, jolasak edota komunak ere egon daitezke. Astigarragako aisialeku honek mahaiak, jolasak eta iturria dauzka. Gainera, San Martingo auzotik gertu egoteak beste zerbitzu batzuetara sarbidea ere bermatzen du.

ÁREA RECREATIVA ASTIGARRAGA: En Gipuzkoa, en un contexto histórico concreto, se crearon muchas zonas cómo esta con el objetivo de proveer una mayor oferta de ocio a los ciudadanos. El servicio básico de las áreas recreativas es la de las mesas y, además, puede haber fuentes, juegos y/o baños. Este área recreativa de Astigarraga tiene mesas, juegos y fuente. Además, al estar cerca del barrio de San Gregorio ofrece acceso a otros servicios.

d



IBILBIDEA: Bidezidorra landa eta mendiko bide estua da, bereziki oinezkoek ibiltzeko prestatua dagoena. Zaldiz edo astoz ere ibili daiteke bidezidorretan. Ibilbide homologatuak bi helburu nagusirekin sortu ziren: alde batetik, biztanlegoari naturara gerturatzea errazteko eta, horri esker natura-baliabideen garrantzia ezagutaraztea; eta bestetik, ondare historiko diren bidezidorrak mantentzea. Egun, bidezidorrak kirola egiteko ere erabiltzen dira.

SENDERO: El sendero es un camino estrecho de zonas rurales y montaña, especialmente preparado para recorrerlo andando. También se puede ir a caballo o en burro. Los senderos homologados se crearon con dos objetivos principales, por un lado, para acercar a los ciudadanos a la naturaleza y, gracias a ello dar a conocer la importancia de los valores naturales; y por otro, para conservar el patrimonio histórico que son los senderos. Hoy en día también se usan para hacer deporte.

### MIDE

| Ingurunea<br>Medio | Ibilbidea<br>Itinerario | Desplazamendua<br>Desplazamiento | Ahalegina<br>Esfuerzo | MIDE ordutegia<br>Horario MIDE |
|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 2 | 2 | 2 h 10 min |
| **Inguruan arriskuak egon daitezke**<br>El medio no está exento de riesgos | **Jarraipena adierazten duten bideak edo seinaleztapena**<br>Sendas o señalización que indica la continuidad | **Mandabideak**<br>Marcha por caminos de herradura | **1 eta 3 ordu arteko ibilaldi jarraia**<br>De 1 a 3 horas de marcha efectiva | (( 112 ))<br>SOS DEIAK |

+ info MIDE
www.mide.montanasegura.com

### Bide-markak
Señalización

| Ibilbidearen jarraipena | Norabide aldaketa | Norabide okerra |
|---|---|---|
| Continuidad de sendero | Cambio de dirección | Dirección errónea |

### + INFO

**Praktika onen dekalogoa**
Decálogo de buenas prácticas

www.gipuzkoanatura.eus
**Trackak eskuragarri**
Tracks disponibles

### Jarraitzeko arauak | Recomendaciones a tener en cuenta

**Txakurrak beti lotuta eraman.**
Los perros deberán ir atados.

**Saiatu mendira bakarrik ez joaten.**
Intenta no ir nunca solo al monte.

**Abeltzaintza estentsiboko eremu batean zaude. Bidean aurkitzen dituzun langak, txabolen ateak eta abar ez utzi zabalik.**
Te encuentras en una zona de uso ganadero extensivo. Cierra las barreras, puertas de cabaña, etc. que te encuentres por el campo.

**Ez ezazu zaborrik lurperatu edo bota.**
No abandones ni entierres la basura.

**Ez egin surik eta ez bota piztutako zigarrorik.**
No hagas fuego ni abandones cigarrillos encendidos.

**Animaliak larratzen**
Animales pastando

** Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA.*

### Legenda
Leyenda

**Ibilbide hasiera**
Inicio de sendero

**Aisia-lekua**
Area recreativa


arazi
ideiak borobiltzen

ATAUNGO UDALA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gipuzkoako Mendizale Federazioa